



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

DEKRETUA

Lehena.- Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko legeak (ekainaren 22ko 11/2007 Legea) 39.artikuluaren aurreikusten du jarduera automatizatuak daudenean, aldeztu aurretik organo eskuduna edo eskudunak zein diren ezarri beharko dela, kasuan-kasuan, espezifikoak, programazioa, mantentze-lana, gainbegiratzea eta kalitate-kontrola definitzeko, eta, hala badagokio, informazio-sistemaren auditoretza eta iturburu-kodea definitzeko. Era berean, legeak zehazten du inpugnazio kasuetarako organo arduraduna zein izango den adieraziko dela.

Horrez gain, 18.artikuluak aurreikusten denez, egiaztagiriko elektronikoen oinarria duten zigilu elektronikoen erabiltzeko aukera dago, jarduera administratibo automatizatuaren jarduna identifikatzeko eta autentifikatzeko. Zigilu elektronikoen sinadura elektronikoki buruzko legediak ezarritako baldintzak beteko dituzte.

Bigarrena.- 11/2007 Legea partzialki garatzen duen 1671/2009 Errege Dekretuko 19.artikuluak xedatzen du eskumendun erakunde publikoaren ebazpenaren bidez sortuko direla zigilu elektronikoen. Ebazpen hori dagokion egoitza elektronikoen publikatuko da, eta onespenerako ebazpenean nahitaez agertu beharko diren datuak arautuko dira.

Hirugarrena.- Durangoko Udalaren administrazio elektronikoa arautzeko ordenantzak (2014/06/14an onartua) 37.artikuluaren honako hau esaten du sinadura elektronikoen bidezko administrazio-jardueren automatizatuak buruz: Jarduera automatizatuak egonez gero, aurretiaz ezarri beharko da zer organori dagokion berorren zehaztasun, programazio, mantentze-lan, gainbegiratzea eta kalitate-kontrolaren ardurak. Eta, kasu bada, baita informazio-sistemaren auditoretza eta iturri-kodea ere. Halaber, inpugnaziorik egin nahi bada, zer organori dagokion adierazi beharko da. Jarduera automatizatu bakoitzerako, dagokion organoaren zigilua jarriko da, eta banan-banan onartu beharko dira Alkatetzaren Ebazpen bidez.

Legearen oinarrituta, eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legeak emandako eskuduntzarekin (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, 21.1.a artikulua),

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Organoaren zigilua erabiltzea honako jardueren administrazio automatizatu hauetan:

1. Udaleko erregistroko dokumentu eskaneatuen sinadura

Prozeduraren azalpena: Udaleko sarrera erregistroan aurkeztutako paperezko dokumentuak eskaneatutako pasako dira ahal den neurrian. Digitalizazioa egiteko aplikazio informatikoen bidez, eskaneatutako dokumentuaren erregistroko idatz-oharretan udalaren organoaren zigilua jarriko da, horrela, eskaneatutako dokumentuaren jatorria egiaztatzeko paperezko jatorrizko dokumentuarekin lotuta.

Sistemak barneratutako herritarren dokumentuak elektronikoki sinatuko dira organoaren zigiluarekin. Dokumentu bakoitzak honako datu hauek izango ditu:

- a) Erregistroko zenbakia edo kodea



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza

Secretaría

- b) Dokumentuen Kode Bakarria (DKB) edo egiaztapen kode segurua, udalari lotua. Horrekin ziurtagiriaren osotasuna egiaztatu ahalko da, udaleko egoitza elektronikoaren sarbidearen bidez.
- c) Dokumentua aurkeztu den eguna eta ordua, denbora-zigiluaren bidez.
- d) Durangoko Udaleko organoaren zigilu elektronikoa.

2. Modu automatizatuan sortzen diren herritarrentzako jakinarazpen eta komunikazioak.

Prozeduraren azalpena: Modu automatizatuan sortzen diren herritarrentzako jakinarazpen eta komunikazioek udaleko organoaren sinadura elektronikoa dute. Dokumentu horien hartzailea espedientearekin lotutako pertsona da eta dokumentuan bertan jakinarazten da elektronikoki sinatuta dagoela.

Dokumentu horrek zera zehaztuko du:

- a) Dokumentua sinatu den eguna, denbora-zigiluaren bidez.
- b) Durangoko Udaleko organoaren zigilu elektronikoa.
- c) Dokumentuari ezarritako irteera erregistroko zenbakia.
- d) Dokumentuen Kode Bakarria (DKB) edo egiaztapen kode segurua, udalari lotua. Horrekin ziurtagiriaren osotasuna egiaztatu ahalko da, udaleko egoitza elektronikoaren sarbidearen bidez.

BIGARRENA.- Hauek izango dira jarduera administratibo automatizatuaren eskumendun organoak:

- a) Prozedurak zehazteko edo xehetasunak ezartzeko: Udaleko Idazkaritza Nagusia.
- b) Informatika arloko diseinurako, programaziorako, mantentze-lanetarako eta informazio sistemen eta iturburu-kodeen auditoriarako: Informatika eta Komunikazio Saila.
- c) Gainbegiratze lanetarako eta kalitatearen kontrola egiteko: Herritarren Arreta Zentroa, udaleko erregistroan eskaneatutako dokumentuetarako.
- d) Inpugnazio kasuetarako organo arduraduna: Alkatetza.

HIRUGARRENA.- Honako zigilu elektroniko hau sortzea:

Organoaren zigiluaren ziurtagiri elektronikoa erabiliko da lehen puntuan zehaztutako jarduera administratiboak identifikatzeko eta sinatzeko, sistema informatikoen bidez eta pertsona fisiko eskudunaren esku-hartze zuzenaren beharrik barik.

Administrazio publikoaren zigilu elektroniko hori legeak aitortutako ziurtagiri elektronikoan oinarrituko da (Sinadura Elektronikoari buruzko 59/2003 Legea, abenduaren 19koa). Zigilu elektronikoa igortzeaz Teknologia eta Egiaztatze Elektronikoaren Agentzia arduratuko da (ACCV), eta aipatutako legean ezarritako eginbeharrak beteko ditu.

Eduki beharko dituzte: Durangoko Udalaren identifikazio fiskaleko zenbakia eta organoaren izendapena.

Informatika eta Komunikazio saila arduratuko da organoen zigilu elektronikoak eskatzeaz, kasuan kasuko onespeneekin, eta zigiluak iraungi baino lehen berritzeaz. Sail horren ardura izango da, baita, zigiluaren zaintza; babeserako beharrezko segurtasun neurriak ezarri eta



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza

Secretaría

dibulгатuko ditu. Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira zigilu elektronikoaren berezitasun teknikoak, bai indarrean daudenak eta baita baliogabetuak ere, gutxienez honako datu hauekin: egiaztagiriaren identifikazio osoa, baliotasun epea eta bere azterna digitala. Gainera, egoitza elektronikoan informatuko da non eta zelan egiaztatu daitekeen egiaztagiri bakoitzaren balioa eta iraunaldia, eta non kontsultatu daitezkeen egiaztagiria igorri duen zerbitzu emailearen segurtasun politikak.

LAUGARRENA.- Durangoko Udalaren zigilu elektronikoa erabiliko da jarduera administratibo automatizatuak egiaztatzeko, kasuan-kasuan pertsona fisikoen esku-hartze beharrik barik. Langile publikoek, organoaren zigilua eta eskuordetutako sinadura erabiltzen dutenean, sortutako dokumentuaren erantzukizuna hartuko dute; bertako datuen egitasunari buruzko erantzukizuna, eta orokorrean, dokumentuaren legezkotasunari eta bere bidalketaren jatorriari buruzkoa.

BOSGARRENA.- Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Durangoko Udalaren webgunean argitaratuko da.

